

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ERAKUNDE AUTONOMO, ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKO ETA SOZIJETATE PUBLIKOEN KONTUEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA-2010.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoen eta Sozietate Publikoen 2010eko ekitaldiaren fiskalizazioa mamitu du, EAEren partaidetza % 50etik gorakoa zutenena. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten ondoko sozietate eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan.

- EGAILAN, S.A.
- EJIE, SA
- ET-FV, SA
- SPRI, SA
- SPRILUR, S.A.
- VISESA
- ETS
- EEE
- URA

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2010eko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, txostenean zehaztutako hainbat sozietate eta erakunderen aurrekontuek ez dute geroko konpromisoen egoera barne hartzen, nahiz geroko ekitaldietarako konpromisoak hartuak dituzten; beste sozietate eta erakunde batzuek, aldiz, egoera jasotzen dute, baina modu osagabea.

Berebat, Epaitegiak azaleratu du langileen atalean lau erakunde eta sozietate publikotan lan kontratupeko 43 kontratazio gauzatu direla inongo hautaketa prozesurik bideratu gabe eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuz, berebat, ezin

egiazatu izan da aipatutako printzipioak bete direla sei erakunde eta sozietatek gauzatutako 50 kontrataziotan, izan ere, hautaketa berriaz gaitutako enpresen bidez egin da eta hauek izangaien azken zerrenda baizik ez dute ematen.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez ez-betetze jakin batzuk azaleratu dira ia erakunde eta sozietate publiko guztietan; azpimarratzekoa da bost sozietatetan gastuak kontratu txiki modura izapidetu direla, Kontrataziorako Barne Aginpideetan ezarritako prozedurak urratuz.

Erakunde eta sozietateen urteko kontuei dagokienez, HKEEren iritzira, egoki erakusten dute 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ekitaldi itxierako ondarearen eta finantza egoeraren isla zehatza; badira, ordea, txostenean bertan jaso diren hainbat salbuespen; bereziki gailentzen da SPRILUR, SA eta VISESA sozietateetan guztira 477,6 milioi euroren zenbatekoan izakin modura erregistratutako aktiboak gauzatzeari buruzko zalantza.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu irizpen eta gomendioen atalean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Ez-betetze hauek nagusiki aurrekontuari, langileriari eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagozkie.